


# Liburuak

KRITIKA

*Aldaira urdinak.*  
Edu Zelaieta.  
Alberdania.  
100 orrialde. 13,50 euro.

Helduen literatura  
Igor Estankona



## Aldakuntza

2004ko *Mugaldekoak* poemategitik hona aldaketa sumatzen da Edu Zelaietaren tonuan –gogoetatsua–, eredueta –klasikoa– eta mezuan –intimoa da *Aldaira urdinak*–, baina orduko liburu hari buruz esan genuen lez oraingoan ere esan dezakegu gasteztarrak poemetan emeki barneratzen duela irakurlea, itsutu barik, berdatu barik.

Orduan lez oraingoan ere, aldarria eta oihumina erabili beharrean, Zelaietak solasaldi xamur bihurtzen ditu bere betiko obsesioak: aberria, muga, banaketa, amodioa, migrazioak... eta denen gairi, aldaira berriak, aldantzak, mudantzak.

Idazleak dio dagoeneko ez dela toki berean bizi, bere sorleku den Gasteizko Alde Zaharretik hiriarren kanpoaldeko Salburua auzo berrira egin berria dutela aldaira: “Baina mudantza hori ez dut mudantza bakarra. Ari naiz gaztarotik gauzarik behinenak biltzen. Ari naiz dudak eta beldurak esperantzarekin nahasten, iragana geroarekin uztartzen”. Heldutasunaren eta atzera begirako poemategi honetan edertasunaren eta umorean pausatzen da idazlea, emeki, bizitza deskribatzerakoan. Atzekoz aurrera poema, esate baterako, eritmoduna, bisuala, hunkigarria da. Eta ustekabeko satiraz bukatzen da, oraindik sakonago eroanez, kontraesanarekin, irakurlea: “Eta bizitzak lardaskatuta nauka une horretan, lurraren magalean jai. / Atzekoz aurrera, ehorzteko gastu ergelik gabe”.

Beste poema askok, oster, berriak Zelaietaren diskurtsoan, ez naute asebate. *Inventario likidoak* ataleko gehienak –hala nola *Libanoko istorioa*– ez dira efektiboak, narrazio erdi-magikoaren muga dabilta, inora iristeke.

Aipatutako bilaketa horri esker, egiari zor, *Marmoken kontua da denbora* eta halakoak aurkitu ditugu; poema handinahiak eta era berean arinak, errealismo kritikodunak, hitzen azpian zer edo zer gordetzen dutenak.

Itxuraz ezdeusa den elea pisua irabaziz eta ekintza poetiko bihurtuz doa pitinka. Menturaz poesiaren azpiko korronteen eta isiltasunaren –elipsiaren– beraren lanketan sakontzea falta zaio, isiltasun horietatik sor daitezkeen beste hitz batzuk, eta beste isiltasun batzuk, eta beste hitz batzuk... Faltza zaio, zentzu horretan, tenple apur bat gehiago, bere kontakizun txikietatik abiatuz zerbait sublimea lortu ahal izateko. Asmatu duen orduan gozatu egin dugu, baina Edu Zelaietari, uneka, materiala agortu egin zaio *Aldaira urdinak* honetan. ■

## Krisiaren lezioak ‘Hemen’aldizkarian

*Hemen* erlijio gogoetarako aldizkaria da, baina horregatik ez dituzte alboan uzten bestelako gaiak ere. Azkeneko zenbakian, 25.ean, krisi ekonomikoa hartu dute gai nagusi. Horretaz idatzi dute Mari Carmen Gallastegui –krisiaren ezaugarriak, zifrak eta hartutako neurriak aztertuz–, Joseba Azkarraga Etxagibeak –kooperatiben munduko begirada eskaini



*Hemen* 25.  
Batzuen artean.  
Frontera.  
103 orrialde.  
7,95 euro.

du–, Sebas Gartzia Trujillok –ikusuntu kristautik–, Joseba Barandiaranek –Euskal Herriko ekonomia nabarmenduz–, Manuel Egigurenek –hirugarren munduko

ikuspegiarekin– eta Mikel Arteagak –baserriaren egoerari arreta berezia eskainiz–. Gainera *Leku-koak* sailean hainbat herritarri gaiak galde egin diete. ■

## Matildereren aurpegiko ubeldurak

Ez da samurra Antton Kazabonek azken libururako hautatu duen gaia: Matilde erietxean dago, senarraren jipoi jaso ostean arrastoak sendatzen. Enara izeneko alabak egiten dizkion bisitak dira kontakizunaren hari nagusia. Alabak, liburuak aurrera egin ahala, gurasoen harremanari buruz gogoetatu du, bere arazoak konpontzen saiatzearekin batera. Bide horretan, biolentzia matxistaz gain, bestelako gaiak ere azalduko zaizkio irakurleari: alkoholismoa, bikote-harremanak, familia puskatueta seme-alabek bizitzen dituzten egoerak... Liburuaren aurkezpenean Kazabonek azaldu zuenez, ez du inolako lezio etikorik eman nahi lan honekin, baina hausnarketarako balio dezala nahi du. ■



*Aurpegiko ubeldurak.*  
Antton Kazabon.  
Elkar.  
107 orrialde.  
10 euro.